

2014ko lehen hiruhilekoan, 921 ezkontza izan ziren, iaz baino % 7,6 gehiago

Ezkontzen % 93 zibilak izan ziren

Eustaten datuen arabera, 2014ko lehen hiruhilekoan, 921 ezkontza izan ziren Euskal AEn, iazko hiruhileko berean baino % 7,6 gehiago (856) eta 2013ko laugarren hiruhilekoan baino % 32,1 gutxiago (1.356). Urteko lehen hiruhilekoan, batez ere, urtarrilean eta otsailean, ezkontza gutxi egin ohi dira.

Aurreko urteetan legez, hiruhileko honetakoa da ezkontza zibilen urteko ehuneko handiena. 2014ko lehen hiruhilekoko datua (% 92,7) iazko aldi berekoa baino handixeagoa da (% 90,8). Lurralde historikoei dagokienez, ezkontza zibilen ehuneko handiena Bizkaian izan da (% 93,9) eta txikiena, Araban (% 88,1). Gipuzkoan, ezkontzen % 92,8 izan dira zibilak.

2014ko lehen hiruhilekoan izandako 921 ezkontzetan, guztira, Euskadin bizi diren 895 gizonezko eta 887 emakumezko ezkondu ziren. Senargaietatik 749k (% 83,7) lehen ezkontza zuen honakoa. eta berriz ezkondu zirenetatik, 8 alargunak ziren eta 138, dibortziatuak. Lehenengoz ezkonduak emakumeen ehunekoa gizonezkoena baino handiagoa da (% 85,2), 756 emakume ezkondu zelako lehen aldiz. Berriz ezkonduak artean, 5 alargunak ziren, eta dibortziatuak, 126.

Ezkontzak ezkontideen adinaren arabera sailkatuz gero, 30 urtetik gorako senargaiak % 88,5 eta emaztegaiak % 82,1 izan ziren. Iazko lehen hiruhilekoko datuekin alderatuta, 30 urtetik gorako ezkontideen ehunekoak gora egin du sexu bietan: iaz 30 urtetik gorako senargaiak % 86,2 izan ziren eta emaztegaiak, % 80,4.


2014ko lehen hiruhilekoko ezkon berrien artean, emaztegaien % 17,2 eta senargaien % 12,8 atzerritarak ziren. 2013ko hiruhileko beraren aldean, emaztegai atzerritarren ehunekoak gora egin du (% 1,6 igo da), ez, ordea, senargai atzerritarrena (% 0,2 jaitsi da).

Bestalde, sexu berekoen arteko 19 ezkontza izan ziren EAEn, 2013ko lehen hiruhilekoan baino gutxiago (22). Horietatik 14 emakumeen artekoak izan ziren eta 5, gizonen artekoak.

	2014ko 1. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoa (2013ko 4. hiruhilekoa)		Aurreko urteko hiruh. bera (2013ko 1. hiruhilekoa)	
	kop.	%	kop.	%	kop.	%
EZKONTZAK	921	100,0	1.356	100,0	856	100,0
Kanonikoak	67	7,3	191	14,1	79	9,2
Zibilak	854	92,7	1.165	85,9	777	90,8
SENARGAIK	895	100,0	1.299	100,0	827	100,0
Ezkongabeak	749	83,7	1.121	86,3	699	84,5
Alargunak	8	0,9	9	0,7	13	1,6
Dibortziatuak	138	15,4	169	13,0	115	13,9
EMAZTEGAIK	887	100,0	1.308	100,0	823	100,0
Ezkongabeak	756	85,2	1.120	85,6	691	84,0
Alargunak	5	0,6	15	1,1	4	0,5
Dibortziatuak	126	14,2	173	13,2	128	15,6

Iturria: Eustat. Euskal AEko Ezkontzen Estatistika

Bizilekua Euskal AEn dutenen ezkontzak. Hileko datuak



Iturria: Eustat. Euskal AEko ezkontzen estatistika

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz
Prensa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62
Euskal AEko EZKONTZEN ESTATISTIKARI buruzko prentsa-ohar gehiago
Euskal AEko EZKONTZEN ESTATISTIKARI buruzko datu-bankua